



euskaltel

HEMEN DUZU ATZERA EGITEKO ESKUBIDEARI BURUZKO INFORMAZIO GUZTIA

Dokumentu honek telefono bidez edo online egindako kontratazioentzat bakarrik balio du. Eskubidea duzu 14 egun naturaleko epean kontratu honetan atzera egiteko, inolako justifikaziorik eman gabe.

Indarrean den araudiaren arabera, 14 eguneko epea duzu zerbitzuaren kontratua bertan behera uzteko (atzera egiteko eskubidea baliatuz), zure produktuen berrespena onartzen duzun egunetik hasita. Ekiporen bat erosten baldin baduzu, ekipoa jasotzen duzun egunetik hasiko da zenbatzen epea. Kontratua 14 eguneko epe horren barruan eten baldin baduzu, eta ez baduzu zerbitzu bakar bat ere aktibo, ez dizugu kobratuko ez kuotarik, ez kontsumorik. Zerbitzuren bat aktibo izan baduzu, egindako kontsumoak eta aktibo izan dituzun zerbitzuen kuoten zati proportzionala fakturatuko dizkizugu. Zerbitzua eta ekipamendua Euskalteleko teknikari ofizial batek instalatu badu eta kontratua lehen aipatutako epean bertan behera uztea erabakitzen baduzu, instalazioaren kostua ordaindu beharko duzu (229,90 €, BEZa barne). Ekipamenduak mezularitzaren bidez jaso badituzu eta zerbitzua zuk zeuk instalatu baduzu, ekipamendua mezularitzaren bidez bidaltzearen kostua ordaindu beharko duzu (30 €, BEZa barne).

Atzera egiteko eskubidea baliatzeko, kontratuan atzera egiteko erabakiaren berri eman behar diguzu modu argian (adibidez, gutun bat bidal dezakezu posta arruntez edo posta elektronikoz). Segidan duzun formularioa erabil dezakezu atzera egiteko eskubidea baliatzeko, baina ez duzu hori nahitaez erabili beharrik. Bitarteko hauek erabil ditzakezu:

1. Posta arrunta, helbide honetara idatziz: 3 posta-kutxatila - 48160 Derio (Bizkaia).
2. Posta elektronikoa, helbide honetara idatziz: doku@euskaltel.com

Telefonoz ere balia dezakezu atzera egiteko eskubidea, 900 840 280 telefonora deituta. Hala eginez gero, eskubidea duzu atzera egiteko eskubidea baliatu duzula berresten duen dokumentu bat jasotzeko; posta arruntez edo posta elektronikoz bidaliko zaizu.

Atzera egiteko epea betetzeko, nahikoa duzu eskubide hori baliatzeari buruzko jakinarazpena bidaltzea epea bukatu aurretik.

Atzera egitearen ondorioak:

Atzera egiten baduzu, zuk egindako ordainketa guztiak itzuliko dizkizugu, baita entregatze-gastuak ere (guk eskaintzen dugun entregatzeko modu arrunta baino modalitate garestiago bat aukeratu duzulako gastu gehigarriak ez badago behintzat), inolako atzerapenik gabe, eta, betiere, kontratu honetan atzera egin nahi duzula jakinarazten diguzunetik 14 egun natural igaro aurretik.

Hasierako transakzioa egiteko erabili zenuen ordainketa-modu bera erabiliz itzuliko dizugu dirua. Ez duzu inolako gasturik ordaindu beharko horregatik, baina atxiki dezakegu zenbateko hori zuk ondasunak itzuli arte edo itzuli dituzula erakusten duen froga bat ematen duzun arte (lehenengo betetzen den baldintzaren arabera).

Ondasunak itzultzearen zuzeneko kostua zuk ordaindu beharko duzu.

Ondasunen izaera, ezaugarriak eta funtzionamendua ezartzeko beharrezkoa ez den manipulazioen baten ondorioz ondasunen balioa txikitzen bada, zu izango zara horren erantzule. Telekomunikazio-zerbitzuak emateko kontratuari dagokionez, zerbitzua atzera egiteko epearen barruan hasteko eskatu baduzu, zeure gain hartu beharko dituzu zerbitzua instalatzearen kostuak eta dagozkizun kuota eta kontsumoak



euskaltel

ATZERA EGITEKO FORMULARIOA

(Kontratuan atzera egin nahi baduzu bakarrik bete behar duzu formulario hau)

Euskaltel SAri

Honen bidez, jakinarazten dizut atzera egiten dudala ondasun honen salmenta-kontratuan / zerbitzu honen kontratuan (*):

Noiz jaso: _____

Kontsumitzaile eta erabiltzailearen izena:

Kontsumitzaile eta erabiltzailearen NAN-zenbakia:

Kontsumitzaile eta erabiltzailearen helbidea:

Kontratutako zer zerbitzuri/tarifari egin nahi diozun uko (Internet, telefono finkoa, mugikorra):

Uko egin diozun linearen zenbakia:

Kontsumitzaile eta erabiltzailearen edo kontsumitzaile eta erabiltzaileen sinadura(k) (formularioa paperean aurkezten bada soilik):

(*). Ezabatu ez dagokiona.

_____ (a)(e)n, 20____ (e)ko _____ aren _____ (e)(a)n.

Euskaltelek jakinarazten dizu zuk emandako datu pertsonalak Taldeko enpresek tratatuko dituztela, tratamenduaren erantzunkide izanik, zure eskaerari erantzuteko. Eskubidea duzu, besteak beste, zure datuetara sartzeko, haiek zuzentzeko eta haiek ezeztatzeko, gure webgunean eskura duzun pribatutasun-politikaren informazio gehigarrian azaltzen den bezala.